

DIRU ITURRIAK

Gure produktua prodizitzeak ez digu kostu handirik eragingo, horrek ate asko irekitzen digu. Kostu txikikoa izateak eskuragaritasun handiago bat ematen die erosleei, produktua azken finean merkeagoa delako. Hori bai prezioa dinamikoa izango da, hau da, produkzioan erabili beharreko osagaien merkatu egoera aldatu ezker, produktuaren prezioa aldatuko da. Beste era batera esanda, produktuaren prezioa produkzioaren kostuarengan menpekoa da.

Produktuaren prezioa 25€-koa izango da, esan bezala prezio eskuragarri bat, gure helburua soilik dirua irabaztea ez dela adierazten duena, ingurunea (ekologikoa delako) eta gu geu (osasuntsua delako) zaintzea baizik, beste batzun artean.

Produktuaren prezioa merkatuaren egoerarengan menpekoa izateaz gain eskariari menpekoa izango da, eskaria handia bada prezioa handitu egingo dugu, baina eskaria txikia izan ezker, prezioa murrizteko beharrean egongo gara. Ondorioz, ezaugarri hauek hartuta, denbora errealeko merkatuzko prezio motari dagokio.

Diru sarrera motak aztertuz, gure proiektuko diru sarrera mota ordainketa bakarrek diru-sarrera izango dela erabaki dugu. Berehalako diru-sarrera eskaintzen duelako, kostuak estaltzeko eta irabaziak sortzeko era simple eta eraginkor batean. Gainera epe luzerako konpromisoak baztertzen ditu, transakzio bakarra nahi duten bezeroen lehentasuna errespetatuz.

Diru sarrerak sortzeko moduari dagokionez, modu nagusia DOMOKUPAK eramateko banakako unitateak saltzea izango da. Estrategia hori eredu sinplifikatzeko aukeratzen da, epe luzerako konpromisorik gabeko transakzio bakarretan zentratuz. Kalitatezko produktu bat prezio lehiakorrean eskaini nahi dugu, salmentak maximizatzeko eta erosketa unean zuzeneko diru-sarrerak sortzeko eta diru sarrerak sortzeko modu hau helburu hori lortzera lagunduko digu.

Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa izango dugu diru kantitate garrantzitsu bat, hasierako produkzioaren arabera hori bai. Diru hori taldeko lau kideen aurrezkietatik aterako genuen, eta hala ere helduko ez bagina beharrezko kantitatera bankuan mailegu bat eskatzeko beharrean ikusiko ginen, danon artean ordainduko genuena.

